

7. Ikasleen lanen zuzenketa

| | | 0 puntu | Puntu 1 | 2 puntu |
|------------------------|----------|--|--|--|
| Herrialdearen kokatzea | | Herrialdearen inguruko azaleko azalpenak eskaintzen ditu. Bere historia kokatzen laguntzeko ez du erreferentziarik ematen. | Herrialdeari buruzko hainbat datu historiko ematen ditu, baina horietan sakondu gabe. | Herrialdearen gaur egungo egoera ulertzeko hainbat datu edo gertaerari buruzko azalpen garatuak eskaintzen ditu, iturriak ongi aipatuz. |
| Testuinguru historikoa | | Herrialdearen bizitza kokatzen laguntzeko ez du egoera sozial eta historikoaren datu edo gertakizunik aipatzen. | Gertaera historiko, geografiko eta sozial esanguratsuei buruzko informazioa eskaintzen du eta baina ez du lotura nabarmenik egiten herrialdearekin. | Gertaera historiko, geografiko eta sozial esanguratsuei buruzko informazioa eskaintzen du eta lotura egiten du aurkeztutako herrialdearekin. |
| Wikipediaren estiloa | Iturriak | Idatzitako informazioa ez du iturri fidagarri batetik eskuratu. Ez du iturriarik erabili. | Iturri gutxi erabili ditu eta iturrien fidagarritasuna ez da bermatzen. | Iturri fidagarri ugari erabili ditu eta testua lotuz osatuta dago. |
| | Egitura | Testua ez dago egituratuta edo informazio guztia jarraian azaltzen da. | Testua egituratuta dago baina ez da koherentzia bat ematen. Atal gehiago bereizi litezke. | Hainbat atalburu eta azpiatal daude, toki egokietan jarritako irudi eta diagramak, eta iturriak eta oin oharrak bukaeran. |
| | Atalak | Testua ez dago atalka banatuta eta ez dira gaiak bereizten. | Hainbat atal bereizten dira baina emandako informazioa ez dago xehetasunez osatua. | Atalak ingi bereiziak daude eta bakoitzean emandako informazioa egokia da. |
| | Neutrala | Iritzi iturrigabeak eta balorazioak jasotzen dira. | Iritzi iturrigabe edo balorazio batzuk egiten dira. | Hizkuntza neutrala darabilte, eta datu objektiboak ematen diete garrantzia. |
| Zuzentasun gramatikala | | Ez du zehaztasun lexiko, zuzentasun ortografiko eta gramatikalez idatzi, eta ez du erabilera sexista eta diskriminatzailea kontutan hartu. | Zehaztasun lexiko, zuzentasun ortografiko eta gramatikalez idatzita dago orokorrean, baina erabilera sexista eta diskriminatzailea ez du kontutan hartu. | Zehaztasun lexiko, zuzentasun ortografiko eta gramatikalez, eta erabilera sexista eta diskriminatzailerik gabe idatzi du. |

